

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA
EMAKUMEEI ZUZENDUTAKO BIOLENTZIAREN KONTRAKO
NAZIOARTEKO EGUNA

Azaroak 25 dela eta, “Emakumeei zuzendutako biolentziaren kontrako nazioarteko eguna”, Errenteriako Udalak ezinbestekotzat jotzen dugu esparru politikoan zein herritarren artean eman beharreko adostasuna eta konpromisoa gauzatzea, ermakumeen kontrako biolentzia gabeko bizitzaren espazio komunak lortu asmoz. Eta helburu honek, bizitza kolektiboaren kudeaketa antolatzen eta kudeatzen diharduen instituzio publiko guztietan lehentasunezkoa behar du izan eguneroko jardunean.

Aurten berriro ere, modu anitzean gauzatutako eta emakume ugari eragindako biolentzia sexista izan dugu gure artean. Desagertzetik urundu eta geure jendartean errotuta dagoen biolentzia matxista honek, aurpegi ugari ditu, tartean eraso fisiko eta sexualak, baina ekonomikoak eta hitzezkoak ere badaudelarik. Aurten ordea, eraso ideologiko eta diskurtsibo ugari izan dugu iritzi publikoan.

Horregatik diogu emakumeek kontrako biolentziari aurre egiteko, bizitzaren esparru orotan berdintasunezko harremanak oinarri izango dituen jendartearen eraldaketa ezinbestekoa dela.

Eta zentzu honetan diogu, biolentzia ez litzatekeela gauzatu ahalko, baldin eta onartzen eta posible egiten duen jendarteratze mekanismoak egongo ez balira; hainbatetan biolentzia kontziente edo inkontzienteki arrazoituztat, beharrezkotzat edo saihest ezinezkotzat jotzen baita.

Horregatik, emakumeek biolentzia matxistarik gabeko bizitza libreak bizi ahal izateko, burutu beharreko lan eta estrategiek ondorengo urratsetan behar dute izan oinarri:

- Emakumeen kontrako biolentziari aurre egiteko garaian, emakume eta gizonen arteko bazterkeria estrukturalaren kontrako lanketa hartu oinarri.
- Biolentzia modu anitz eta ugariak bistaratu, biolentzia horiek gauzatzen diren espazio ugariak agerian uztearekin batera.
- Baztertzailak diren adierazpen eta gauzpen kulturei aurre egin.
- Agerian utzi, prebentzio lana egin eta emango bada aurre egin, beste biolentzia sexista moduei, transfobia, lesbofobia edo homofobiaren modukoei.
- Prebentzioa ezinbesteko elementutzat hartu, berdintasuna oinarri izango duten

harremanak sortu eta eraikitzeko garaian, hezkuntza formal eta ez formalean eragin beharko dugularik.

Honengatik guztiagatik, Errenteriako Udalak, honako konpromisoa hartzen du:

- Berdintasun esparruko politikekiko konpromisoa mantendu eta egonkortu, berdintasun politikak garatzeko behar diren baliabide ekonomiko eta giza baliabideak indartuz.
- Udalerrian eman litezkeen ekintza eta jarrera sexisten aurrean, prebentzio eta salaketarako eragile aktibo izan.
- Abian jarri, hedatu edo indartu, emakumeen parte hartze ekitatiboa ahalbideratzen dituzten jai edo jardun sinbolikoak, bai eta gainerako espazio sozio-kulturalak ere.
- Emakumeen enpoderamendua bultzatzen duten gune komunak sortu edota indartu, behar adina baliabiderekina eta sare lana sustatuz, enpoderamendu eskolak edo emakumeen etxeen modukoak.
- Ahulenak diren guneetan biolentzia matxista eman ez dadin, instituzioen arteko elkarlana bultzatu, baliabide tekniko eta ekonomikoen bitartez: gazteak, adinekoak, etorkinak, nekazal guneak, aniztasun funtzionala dutenak, etab.

Azkenik, dei egiten dugu egun honi begira mugimendu feministak antolatu dituen ekimenekin bat egin eta bertan parte hartzera.